



Osasun alertak eragindako konfinamenduan, haur eta nerabeak etxean daude eta euskaraz aritzeko aukerak murriztu zaizkie, batez ere familia ez-euskaldunetan.

Horietako askok, euskaraz aritzeko aukera bakarrenetakoa eskolan izaten dute, eta orain galdu egin dute aukera hori. Horren ondorioz, ume eta gazte askoren hizkuntza-gaitasuna eta hezkuntza-prozesua kaltetu daitezke.

Arabako Mendialdeko Kuadrillan, ikastetxeekin eta guraso elkarrekin batera, haur eta nerabe horiei laguntzeko euskarazko mintzapraktikak antolatzen ari gara,

Nola? Astean bitan, 30-45 minutu inguruko online saioak, 3 haur eta dinamizatzaile bolondres bat. Jolasak egingo dituzte eta gai ezberdinetaz hitz egingo dute.

Noiz? Ekainaren 19 arte

Nolakoak izango dira mintzapraktikak? Elkarrizketak online izango dira, eta ikastetxeek erabili ohi diren tresnen bidez izango dira (meet, zoom...), telefonoan zein ordenagiluan.

Bi modu daude izena emateko:

- **Lagundu nahi diguzu? Bolondres bila gabiltza**

Ume/nerabeei laguntzeko, euskaraz ondo moldatzen diren gazteak/helduak behar ditugu. Interesa baduzu, bete ondorengo formularioa:

https://docs.google.com/forms/d/1BAEeVypu17_r4MTNcU9UUoz9-nZE8Glu5_pA45M_BsI/edit

- **Zure semeak/alabak mintzapraktika behar du?**

Zure semeak/alaba mintzapraktika saioetan parte hartzera animatzen bada, bete ondorengo formularioa:

https://docs.google.com/forms/d/11ex4Wckj1OOC1lpPWF491P0rsRIkV17xj2j_bvTkg4U/edit

Edozein zalantza baduzu, jo Arabako Mendialdeko Kuadrillaren euskara zerbitzura: euskera@montanaalavesa.com edo zure semearen edo alabaren irakaslearengana.